




ADI NATURA liburu bilduma

Ingurua deskubritu
umeentzat leku bat egiteko



Hurrei Euskal Herria, bere zentzu zabalenean, ezagutzen, maitatzen eta gozatzen lagunduko dieten liburuak egiten ari gara. Txikitik abiatuz, hurrek beren ingurune hurbila hobeto ezagutu dezaten, uste baitugu zerbait maitatzen has-teko, lehenik ezagutu beharra dagoela, eta, ondoren, maitasunetik etorrriko dela babesteko ardura.

Lehenengo urratsa hurbilekoa izan behar da, hori ez badugu maite, nekez maiteko dugu urrunagokoa ere. Horrela, **ADI NATURA** gure liburuen helburu nagusia umeek euren ingurune

hurbila ezagutzea izango da. Ikas dezatela ikusten, ukitzen aurrean duten hori. Euren eskuez uki dezatela, zikin daitezela, blaitu. Horrela sentituko baitira eurak ere ingurune horren parte direla. Zentzu horretan, naturarekiko kontaktua berreskuratzeko lagungarri ere izan nahiko dute gure liburuek.

Hurrek murgilketa, bakardadea eta interakzioa behar dute ikasteko, hurbilekoa eta ezaguna zaien mundu batean. Bizi izan duguna, hunkitu izan gaituena, askoz hobeto ezagutzen dugu finean. Eta ezagutzea ez da aspergarria, eta ez du zertan ordenatua izan ere. Batez ere haur txikiengan ezagutza hain “teorikoak edo akademikoak” ez baitira batere aproposak. Jolastiago izan nahi dugu.

Beraz, **ADI NATURA** bildumako liburuek ardatz ludikoagoak dituzte, dela istorio bat, dela misterio bat argitzea... eta ikertzaile bihurtuta, inguruko guztia ezagutzuz joango dira. Tartean gure Lurrak dituen ajeak ere agertuko zaizkigularik, noski.


Zer gai jorratuko ditugu?

Ingurumenarekin zuzenean lotutako gaiak azaltzen dira liburuetan: energia, elikagaiak, klima aldaketa, ekolo-gismoa, biodibertsitateari mehatxuak, baliabide naturalak, hondakinak...

Dena den, oso garrantzitsua da guretzat paisaia kulturala ere. Euskal Herria osatzen duten dimentsio guztiak kontuan izatea. Guretzat oso garrantzitsua da gaiak lantzerakoan baita erabiltzen ditugun begiradak aukeratzea. Elikadura, burujabetza, feminismoa, kultur-transmisioa, ekologismoa, artea... Horien inguruko mezu zuzenik ez eman arren agian, ikuspuntu horiek oso kontuan izango ditugu sortzeko garaian, gure mezuen oinarrian egon daitezen.

Hurrek senez dute beste izaki bizidunekiko interesa eta enpatia; hortik abiatuta euren jakin-mina pizten asmatu nahi dugu. 3 eta 12 urte bitarteko umeentzako liburuak dira **ADI NATURA** bilduman batzen direnak. Adin tarte ezberdinak eratu ditugu eta horiengana liburu ezberdinekin hurbilduko gara, hain zuzen ere, adinaren arabera, hurrengana heltzeko modua oso desberdina izan behar denez, adin-tarteetan sailkatu ditugu hurbilpena egiteko moduak edo kontuan hartzekoak.





NARRASEAN


3-6 urteko umeentzat

Etxea da haurraren jardute-gunea; baita inguruko natura ere: euliak, inurriak, zizareak, kakalardoak, barraskiloak... hala nola etxe-eskola barru-inguruko txori eta animaliak.

Haurra izaki horien babesle sentitu ohi da. Etxean bertan ere natura aurki dezakegu.

“Ez esan ez gaudenik, nahiz eta agian begiak eduki, ez duzu arretarik jarri, baina, hemen gaude. Zure artean bizi gara, bai, animalia hiritarrak gara, eta ez, ez gara txakurrak ezta katuak ere. Animalia basatiak gara gu!! Ezagutzeko jakinmina duzu? Begiratu ondo, zure etxeko leihoan, etxe aurreko zuhaitzean edota parkean edota zubi azpian, hemen gaude!! Gu zu ezagutzeko desiota gaude. Egin dezagun bat, lagun!!!”





NORK HIL DU TRIKUA?

8-10 urteko umeentzat

Ezbeharra gertatu da zure etxetik hurbil dagoen errepede ondoan! Triku bat hilik agertu da. Hara!! Zer gertatu da? Zerk edo nork hil du? Ikerketan parte hartu nahi duzu? Gonbitea helarazten dizugu. Arras-toei adi jarraitu, topatuko dituzun frogak batu eta, aztertuz gero, gerta-kizun latzaren oinarrira joango zara misterioa argitzeko. Bidean, Euskal Herriko natura inguruetan zer gertatzen ari den ezagutzeko aukera ere izango duzu. Prest zaude hasteko?

6

Abiatzeko prest?

Liburua ezhar deskubrituko dituenen pistak eta datuak bildu eta idatzi ditzaitezuen hemen.

ESKADURA

EZAU/CARRIAK

OHITURAK

HIBERNAZIO GARAIAN

HARRAPARIN

7

Hona hemen hilik agertutako trikuaren fitxa

Espeziea: Triku, kirikiñoa

Adina: 4 urte

Pisua: — g datu-han aurkezten diren osorik daturik ezak

Luzera: 30 cm

Oinatz-marka:

Heriotzaren kausa: ezeguzuna

Heriotzaren data: ezeguzuna

Gorputz aurkitu zen ordua:

- 07:00
- N-678 errepede ertzean

Alpamen bereziak:

- Lokatzez estalia zegoen.
- Hortz bat falta zitzaion.
- Osorik zegoen.

24

KLIMA-ALDAKETA

KLIMA

Asken hamarkadetan klima aztoratuta dabil. Entzuzgo zuen zuk ere zeezer, eta?

Euskal Herriko tenperaturak aldatzen ari dira dagoeneko.

1980-1990

1990-2020

2020-2050

2050-2080

Precipitazioak ere aldatuko dira, nahiz eta ez dagoen oso garbi nota aldatuko diren: gehiago, gutxiago, neputik udaberri pasatuko diren... Ikertu behar! dago gehiago jakiteko!

?


25

Klimak gogor eragiten dio espezieen banaketa naturalari, eta egituran ez ezik, ekosistemen funtzionamenduan ere eragina du klima-aldaketak.

Horrela, itsaso azpian harkaitzei lotuta bizi diren bizidunengan aldaketa nabarmenak antzerman dituzte euskal kostaldean.

GAZTE NATURALISTEN KOADERNOA. BASOKO SEKRETUAK.

4-12 urteko umeentzat



Basora goaz. Baina itxaron!! Behar bezalako naturalistok (eta gu horrelakoak gara), irten baino lehenago, prestatu eta planifikatzen dute zer egingo duten. Horretarako, ezinbestekoa da koadernoko orrialdeetan murgiltzea, naturan zer aurkituko dugun irudikatu nahian. Horrela jakin dugu lurra bizitzaren fabrika dela, zuhaitzak landare hutsak baino askoz gehiago direla eta basoetan eta mendietan kuadrilla handia bizi dela.

Koadernoak, gainera, landare eta animalia espezieak ezagutzeko gakoak eskainiko dizkizu, haien arrastoak non eta nola aurkitu, haien ohituren eta bizitokiaren berri emango dizu. Horrez gain, naturan esperimenduak eta jarduerak egiteko irizpideak ere ematen dizkizu. Zer uste zenuen, ba? Hauxe benetako naturalisten koaderno da, lagun!!

Ugaztunak

Gure antza dutelako guretzatzen zaizkigu ugaztunak. Hea date, oinez mugitzen dira, bere kume maitagarriak ematen dituzten dira. Neskak Gea be ugaztunak bultzatzen Basoan eta mendietan ugaztunak azken dardaren arren, nahiko lotatsak dira eta, beraz, oso zaila da ikustea. Haien antarnak eta seinaleak irurtzen ikasi behar dugu, hurbil egon diren jakiteko. Lehenik, hobeto ezagutu ditugu:

Apatxak dituzten ugaztunak

Gure mendietako beharjale handiak apatek edo apodunak dira.

Orkatza
Capreolus capreolus

Hogei eta hosi kilo inguruko orein txikiak da, hanka luzeak, mutur zorrotza eta belarri handiak ditu. Arrak oso luzeak ez diren adarrak dauzka. Basoko espezie bat da.

Oreina
Cervus elaphus

Tamaina handiko animalia da. Bi metro baino gehiago luze eta berrehun kilo arteko pisua izan daiteke. Arrak emek baino handiagoak dira eta alder luzeak dituzte. Basoan eta inguru irekietan bizi da.

Pirinioetako sarria
Rupicapra pyrenaica

Ahuntz baten antza dauka. Hogei eta hamar kilo pisatu ditzake, eta arrek zein emek kaka-formako adarrak dituzte. Oso argirikak dira bere buru eta eztarri argiak eta begi gainean duen marra beltza. Mendialdean bizi da.

Basurdea
Sus scrofa

Txerriaren antza du, baina ile ilun luzeak, buru handia eta mutur zabalak ditu, azken hori, luzeagoa emetean. Lehiagun luze eta makurrak ditu. Basoan bizi da, baina ia edozein habitataira egokitzten da.

ADI ibili

Oreinak eta orkatzak adajekak dituzte. Hezurzelko egiturak dira, urteak urtera erori egiten zaizkien, eta gero eta handiagoak izaten dira urteak pasa ahal. Sarriok, oreinak, keratinazko adarrak ditu. Keratina gure azazkaren antzeko materiala da. Adarrak ez dira erortzen eta pikkanaka hazten dira animalia biziaren bitartean zehar.

JARDUERA

5 minutuk aurrera

Bost urteko aurrera

Urteko gerta: edozein

Astarnak dituen edozein lekutan

NOLA egiten da?

1. Bita ezazu oinatz bat edo azarna multzoa, gustuko duzuna eta etxera eramán nahi duzuna.
2. Ipini gainean paper gardenak, kantu handia. Ezein presio handirik arrastoa ez ezabatzeko edo forma gal ez dadin.
3. Errotuladore iraukorrekin, oinatz kopiatu edo kalkatu, eta apatzen edo azazkaren, halzen, kuxinen eta orpoaren ertzak markatu. Ez utzi ezer kopiatu gabe.
4. Hatz markak zein animaliarekin diren baldin baldin izan, idatzi izena paperaren bertan. Aurkita dituzun zorro-mota, lekua eta data ere idatzi ditzazke.

Oinatz etxera eramaten duz erraza da.

ERAMAN oinatz etxera

Hasieran ez da lan erraza izango, dudarik ez, baina miaketan esperientzia handitzen denetan, arrasto pila aurkituko duzue. Topalzen dituzun oinatzaren orbigarri izateko argazkiak egingo dituzue, neurriak hartuko dituzue... Baina, ez zenake nahi etxera eramán eta oinatz bilduma egin? Ba, etxera eramateko modu erraz eta azkar bat proposatuko dizugu.

MAKATZEA

- Paper garden gogorra (azetato motakoa)
- Errotulagailu iraukor fina edo beiran idazteko errotulagailua
- Karpeta

130

131